

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 4641

*EBAZPENA, 2018ko irailaren 10ekoa, Kultura sailburuordearena, kultura-arloetako jaialdiak antolatzeko diru-laguntzak emateko Balorazio Batzordearen batzarkideak izendatzen dituen eta haren osaera argitaratzen duena.*

Ikusirik 2018. urtean kultura-arloetako jaialdiak antolatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko maiatzaren 23ko Agindua.

Kontuan izanda Agindu horren 13. artikulua aipaturiko diru-laguntzak emateko Balorazio Batzorde batek Ebazpen proposamena egingo duela eta Batzorde horren kideak izendatzea eta haren osaera argitaratzea Kulturako sailburuordearen Ebazpen bidez emango direla jasotzen duela,

Horiek horrela,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Balorazio-batzordearen kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea.

Mahaiburua: Aitziber Atorrasagasti Calcedo anderea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Idazkaria: Rafael Elizondo Saiz jauna (Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikaria).

Batzordekideak: Vanesa Fernandez Guerra andrea, Alberto Ibarondo García jauna, Jaione García Azcona andrea eta Arantza Atutxa Lejarreta andrea.

Bigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 10a.

Kulturako sailburuordea,  
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.